



Gibel jateak zabalduko ditu bihar Inauteriak

LIZARTZA ▶ Otsolar taldeak dantza bereziaz osatutako saioa eskainiko du festen lehen egunean

BITAN ▶ Jaiak datorren asteburuan jarraituko du; mozorroek eta gurdiak orduan hartuko dituzte kaleak. ▶ 6

VILLABONA ▶

Historiaurrea ikertzeko taldea sortu nahi dute

'La senda aborígen' lanaren aurkezpenak piztu du gaiarekiko jakinmina ▶ 5

LEITZA ▶

Partida garrantzitsua du gaur Oinatz Bengoetxeak

Eskuz Binakako Pilota Txapelketako finalerdietara pasatzea dago jokoan ▶ 7



Rock gogorraren txanda Bonberenean

TOLOSA ▶ Txuma Murugarrenek eta Piztiak taldeak zuzenean joko dute gaur Bonberenean; bihar, El columpio asesino (argazkian) ▶ 3

ZIZURKIL ▶

Torturaren krudeltasuna agerian ▶ 4



www.elkar.com

Nahi duzunaz solastuko gara.

Gura duzunaz egingo dogu berba.

Nahi dezunaz hitz egingo degu.

Nahi duzunaz mintzatuko gira.

Euskal Herriko txoko guztietara iristen da **elkar megadenda**. 14 denda eta 150.000 erreferentzia baino gehiagorekin, eskaaintza zabalena aurkituko duzu libururik, musikaririk, edo jolasetan. **Kultura** guzti-guztia zure esku.



elkar ezagutzen dugulako



KULTURA ▶

Inauterien atarian, kultur ekitaldien eskaintza zabala

Besteak beste, antzerkiek, erakusketek eta musikak osatzen dute agenda

NOLIA LATABURU

Hilabetero legez, Tolosako Udalak otsailerako kultur ekitaldi eta jardueren eskaintza zabala aurkeztu du. Oraingoan, nola ez, tolosarron jai nagusiak dira aipagarrien, Inauteriak, hain zuzen ere. Hil honen 23a izango da Ostegun Gizena eta sei egunez luzatuko da zorarena. Eguna allegatu artean, hala ere, izango da zer gozatua gurean: antzerkiak, erakusketak, musika emanaldiak... Hona hemen gune ezberdinetan izango direnak, banan-banan zehaztuta:

ANTZERKIA

'Ahulkiak'. Harkaitz Canoren *Ahulkiak* antzezlanaren taularatuko dute, gaur, 22:30ean. Sarreak salgai izango dira, 3 euroren truke, Kultur Etxean, emanaldia baino ordu erdi lehenago.

ERAKUSKETAK

Luis Maria Nuñez. Luis Maria Nuñezen pintura erakusketa

dago ikusgai Aranburu Jauregian hilaren 25era bitarte. Arratsaldero bisita daiteke erakusketa, astelehenetan eta jaiegunetan izan ezik, 17:30etik 20:30era.

Paco Polan. Paco Polanen argazki erakusketa izango da ikusgai, Aranburu Jauregian, martxoaren 11 arte.

'Irudiz irudi'. Errotan *Irudiz irudi* erakusketa jarri dute ikusgai. Etzi izango dute interesatuek hau bisitatzeko azken aukera.

MUSIKA

Txuma Murugarren eta Piztiak. Gaur, 22:30etik aurrera, Txuma Murugarren eta Piztiak musika taldeen kontzertuak izango dira entzungai Bonberenean.

El columpio asesino. Bihar, berri, 22:30etik aurrera, Bonberenean El columpio asesino taldearen emanaldia izango da.

ZINE-KLUBA

'La mascara 2'. Hilaren 12an,



Luis Maria Nuñezen pinturak, Aranburu Jauregian. I. ASENSIO

igandearrekin, *La mascara 2* filma izango da ikusgai Bonberenean, 19:00etan.

BESTELAKOAK

Hilak 15, asteazkena. Bonberenea Txarangaren kantuen partitura liburuxkaren aurkezpena, Donostiako Koldo Mitxe-

lenan, 12:00etan. Egun berean, Errotan, 3 eta 6 urte bitarteko haurrentzako ipuin kontaketa, 18:00etatik aurrera.

Hilak 18, larunbata. Aiz-Orratz elkartearen haur jaialdia, Beotibar pilotalekuan, arratsaldean.

Hilak 23tik 28ra. Inauteriak.

INAUTERIAK ▶

Karroza eta konpartsetarako azken eguna

Gaur amaituko da Inauterietarako karroza eta konpartsen lehiaketan parte hartzeko izena emateko epea. Aranburu Jauregian eman daiteke izena, 12:00etatik 14:00etara eta 17:30etik 20:30era.

GIZARTEA ▶

Tolargik argindar mozketak egingo ditu egunotan

Tolargi instalakuntzetan hobekuntza eta mantenimendu lanak egingen ari da; hori dela eta, egunotan argindar mozketak egingo ditu: gaur, Nafarroa etorbideko 11n, behean, 08:00etatik 08:45era; eta hilaren 13an, astelehenarekin, Korreo kaleko 1, 3, 5, 7, 11, 13, 15 eta 17 zenbakietan, 08:15etik 12:30era.

INAUTERIAK ▶

Udalak trafikolaguntzaileak behar ditu

Tolosako Udala Udaltzaingorearen trafikolaguntzaileak kontratatzeko da Inauterietan lan egiteko. Tolosan erroldatua izatea eta ikastaroak egin izana baloratuko du; euskera azterketa egingo ere zaie. Interesatuak izen-ematea udaletxeko informazio bulegoan egin behar dute.

GIZARTEA ▶

'Energia bizi' erakusketaren azken eguna

Gaur izango da *Energia bizi* erakusketa ikusi ahal izateko azken eguna, Plaza Berrian.

Gaur, Harkaitz Canoren 'Ahulkiak' lana, Kultur Etxean

Gaur ere *Ahulkiak* antzezpenez irakurria aurkeztuko dute, Kultur Etxean, 22:30etik aurrera. Harkaitz Canok irakurketa lanak burutuko ditu, eta aktore lanetan Itziar Lamuedra eta Patxi Santamaria ariko dira. Ahulkien zaratak, berri, Oier Iruretagoienak (Tüsüri) burutuko ditu, eta soinu banda gehigarria J.S. Bach (BWV 1007-1009 suiteak), Amalia Rodríguez, Bessie Smith eta Shigeru Umebayashi-ren esku joango da.

«Aulkiak. Ez da egongo beste

altzari bat gizakiaren antza handiagoa duenik. Aulki elektrotik hasi eta bizarginaren aulkira, erregeen tronutik hasi eta behia jezteko erabiltzen den banketatxora, geltokietako aulki nahiz ospitaleko itxarongeletako eserleku plastikozko, badira mila eta bat aulki. Askotan, ordea, indarra zurrupatu ere egiten digu aulkiak, ahulki bilakatzen dela, alegia, eta bertan esertzen dena, patuaren mende dagoen desanparatu». Honelaxe definitzen du Bederen bat kultur



Harkaitz Cano. HITZA

elkartea taula gainean aurkeztuko duten lana.

Historiako une ezberdinen erreposoa egiten du errezialdi antzeztu honek, beti ere «aulkiak protagonistatzat hartuta», eta eserita luze egoteak «gutariko edonor aulki bihurtzeko dakartzan arriskuen berri gaztigatuz». Cano irrati eta telebistako gidoigile eta egokitzaile bezala aritu izan da. Gerroztik, genero ezberdinak landu ditu: ipuinak, nobela, literatura eta poesia. Generoak nahasten diren bidegurutzeez zale ere bada: horren adibide, *Ahulkiak* lana. ◀

hilberria ▶

Benedicta Sarasola Izagirre

(Jose Portugalen alarguna)

DONOSTIAN hil zen. 90 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Golan bago—

Haren seme-alabek: Martin eta Kontxi; bilobek: Amaia eta Ibai; ilobek, lehengusuek eta gainerako ahaideek

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizueteeta arren etor zaitezela BIHAR LARUNBATA, 18:00ean, EGIAKO MARIA ERREGINA parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

DONOSTIA, 2006ko otsailaren 9a

hilberria ▶

Joxemartin Apalategi Begiristain



Egun zaarak yon ta berriak etorri, gaur poz bihar oiñaze, noiz burni noiz zillar, zenbaitek ondandendi baituten katea lore-sorta bekizu goi-muñoak zear!

(Lizardi)

Euskal Idazleen Elkarte

DONOSTIA, 2006ko otsailaren 10a

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

**Gipuzkoan
50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

MUSIKA ▶

Rock gogorra gaur eta bihar Bonberenean

Txuma Murugarren, El columpio asesino eta Piztiak ariko dira

NEREA URBIZU

Aurrera doa otsaila, eta aurrera ere Bonbereneak prestatutako agenda erakargarria. As-tebururo legez, gaur eta bihar kontzertu apartak izango dira etxean. Rock gogorra izango da nagusi, gainera. Gaur Txuma Murugarren eta Piztiak igoko dira Bonbereneako taula gainera, 22:30ean. Eta bihar, berriz, ordu berean, El columpio asesino taldeak joko du zuzenean. Igandean, bestalde, igandero zine-kluba eskainiko dute etxean: 19:00etan, *La mascara 2* izango da ikusgai.

Txuma Murugarren. Esan bezala, gaur Txuma Murugarrenek irekiko du gaua Bonberenean. Sasoi Ilunak taldearekin hiru disko kaleratu ondoren bakarka argitaratzen duen bigarren lanak *Hegazkinen ari-ma* du izenburu. Rocka jorratzen du azkenaldian abeslari honek. Horretarako, disko antzak egin ditu goi mailako musikari laguntzaz. Kantu leunak, rock gordina eta popa aurki daiteke bere kantutegian. *Nere anaiaren kotxeko argiak* da bere azken diskoa eta bertan ere kantu ederak egiten maisua dela erakusten du. Zuzenekoetan formatu akustiko eta elektrikoan ari-

tzen da. Hori guztiaz gozatu ahal izateko gonbidatu dute Bonbereneakoek.

Piztiak. Etxeko oholta gainera igotzen hurrenak Piztiak taldekoak izango dira. Disko kontzeptualak eta gitarreroak egiten dituen nortasun propio taldea dugu Piztiak. 60-70 hamarkadetako rock and rolla gustoko dutela nabari izan arren, haiengandik gertuen izan dituzten belaunaldien eragina da nabariena: REM eta Pearl Jam taldeak, besteak beste. Hitz sakonak dituzte beren kantuetan, eta zuzenekoak indartsuak egiten dituzte. Beraien azken lanak *Argia eta itzala* eta *Zero* dira. Hauek entzuteko aukera izanen da bihar. Bestalde, *Euriaren zain* izeneko egitasmo berrian ikuskizun berezia prestatu zuten.

El columpio asesino. 1992. urtean osatu zuten taldea bihar Bonberenean ariko direnek. Bitxia izan da El columpio asesino bandaren historia, plaza talde baten atsedendian haien tresnak jotzen hasi baitziren Etxabakoitzen (Nafarroa), herriko bizilagunak aztoratuz. Izan ere, ez zuten kontzertua eskaintzen ari zen talde haren musika estilo bera jotzen, kanta punkiak baizik.



Txuma Murugarren kantaria; gaur joko du Bonberenean. HITZA

Beste bi lagun ere animatu ziren handik denbora batera, eta honela taldea osatuta geratu zuten.

Kontzertuak ematen hasi ziren, baina «ez oso kalitate onekoak», adituen ustez. Baina aldaketa etorri zen, Benicassim-en egiten den Nazioarteko Jaialdiarekin batera, 1997. urtean. Proposamen berriak egin zizkieten taldekideei, eta aldatu egin zituzten taldean, tronpetak soinuak gehituz, besteak beste.

Hala, hainbat sari eskuratu dituzte; hala nola, Lagarto Rock-ekoa. Horietako sari batekin diskoa grabatzea lortu-

zuten, Donostiako estudio bategan, 2003. urtean.

«Oso zuzeneko onak» ematen dituztela azpimarratu dute behin eta berriro adituek. Gainera, Fnac disko dendak talento berrien izena eman zien.

Pop-rock estiloan aritzen dira El columpio asesino talde nafarrekoak. Baina nahasketa ere egiten dute musikarekin: eklektikoa da haien estiloa, atmosfera gogorrekin.

Madrilgo sei kartzeletan ere jotzen aritu dira, Madrilen bertan antolatutako kultur egitarau baten barruan. Izen handia duen taldea hortaz, Bonberenean.

ALEGIA ▶

Mendi irteera igandean, Alegiatik Ollauna

Igandean Alegiatik mendi irteera egingen dute, San Juan Herri Eskolako guraso elkar-tekak antolatuta. Ibilbidea Alegian hasiko da, Altzora joateko eta txangoa Ollaunen bukatzeko. 09:30ean aterako dira Eskola Txikitik mendizaleak.

AMEZKETA ▶

Talai-dantzarako entsegu egunak zehaztu dituzte

Talai-dantza egiteko deialdia luzatu dute amezketarrek gaurko, 19:00etan balio antzeko gelan elkartzeak baitira. Inauterietako igandean eta astelehenean dantzatzeko asmoa dute, urtero egin ohi duten bezala, eta bileran entsegu egunak zehaztu egingo dituzte, besteak beste.

ALEGIA ▶

Laboretako ikastaroa martxotik aurrera

Datorren martxotik maiatza bitartean, laboretako ikastaro berri bati hasiera emango diote Alegiako Kirol eta Kultur Etxean. 22 orduko iraupena izango du ikastaroak, eta ostiraletan emango dute, 15:00etatik 17:00etara. 45 euro ordaindu beharko dira. Kultur Etxean bertan izena emateko aukera dago, eta epea hilaren 24an amaituko da.

hitza *lagunen*
txokoa

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

Avalon
o s a g a i a k
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honekin
TOLOSA
Tel.: 943 67 22 44

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
ONINAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

TOLOSA ▶ AHT

Atzeratu egin dute epaiketa

Erredakzioa ▶ AHTren inguruko epaiketa atzeratu zuten atzo Tolosako epaitegian, lekuko bat ezin izan dutelako aurkitu. Martxoaren 30ean jarraituko dute auziarekin. Sei lagun deitu dituzte auzitegira, Andoain inguruan egindako zundaketa gertatutako protesta batzuen harira. Epaitegiaren aurrean elkarretaratea egin dute ehun bat lagunek, *AHT gelditu, Denon esku dago* eta *Kriminalizaziorik ez* leloak aldarrikatuz. Laskorain Ikastolan, Orixe Institutuan eta Paper Eskolan ikasleek ordubetz klaseak gelditu dituzte. N. L.



VILLABONA ▶

Urdapilleta etxea ezohiko bilkuran mintzagai

ERREDAKZIOA

Villabonako Udalak ezohiko bilkura egingo du hilaren 15ean, asteazkena, 19:30ean. Eztabaidatuko dituzten gaien artean «Urdapilleta etxea Haur Eskolarako berri-za», proiektu tekniko eta baldintza administratibo berezien agiria onartzeko nahiz obrak lehiaketaz esleitzeko espedientea bideratzeko proposamena egongo da. Egun, Urdapilleta etxean herriko Gaztetxea dago.

ZIZURKIL ▶ ERAKUSKETA

Torturaren krudeltasuna aurrez aurre

TATek egindako 'Torturak badirau' erakusketa Atxulondo kultur etxean

IMANOL GARCIA

Asteburuan egingo diren torturaren aurkako ekitaldien baitan, Atxulondo kultur etxean Torturaren Aurkako Taldeak (TAT) egindako *Torturak badirau* erakusketa dago ikusgai. Tortura bere krudeltasunean islatzen dute erakusketa osatzen duten hamabost panel inguruk eta bertan irakurri daitezkeen testuak.

Argazkietan hainbat tortura praktika ikusi daitezke: ostikoak, poltsarena egitea, bortxaketak... Horrez gain, torturak jasan dituzten argazkiak ikusten dira, gorputzak izandako ondorenak erakutsiz. Argazkiek alde fisikoa erakusten badute, testuek torturatuen sufrimendua islatzen dute: non jasotzen zituzten golpeak, deklarazioak egitera nola behar-

tzen zituzten... Gogorra da benetan erakusketak azaltzen duena.

Argazkietako batean egunotan auzitegiatan tortura salaketa bertan behera utzi dioten Unai Romanoren argazkia eta adierazpenak agertzen dira. Honela dio testuak: «Nire egoera basatia da, burua puzten ari zait izugarri azkar eta dagoeneko ez dut ezer ikusten. [...] Burua erretzen ari zait eta handik ateratzea besterik ez dut nahi. [...] Burua erreta nuen, ikutzen nuen eta izugarri puztuta nuen. Begiek mina ematen zidaten eta burua lehertzerantz ziohala sentitzen nuen».

Erakusketa zabalik izango da gaur eta astelehenean, 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, eta bihar eta etzi eguerdi inguruan.



Kolpeak sarritan agertzen dira paneletan erakusten diren testuetan. HITZA



Poltsarena egin zaiela, hau da, arnasik gabe uztea, salatzen dute testuetan tortura jasandakoek. HITZA



Unai Romanoren buruak Guardia Zibilak atxilotu ondoren zuen itxura ageri da panel batean. HITZA

ENBALAJE INDUSTRIALA
egiteko mutil bat
behar da
iluntzeko 20:30etik aurrera
deitu
Tel.: 651 657 982

TOLOSALDEKO
HITZA.INFO

Inketa. AHTren aldekoa al zara? Eman zure iritzia webgunean.

VILLABONA ▶ KULTURA

Historiaurrea ikertzeko taldea sortu nahi dute herrian

‘La senda aborigen’ liburuaren aurkezpenaren ondoren sortu den interesa bideratzeko bilerara deitu dute gaur



Beizama inguruetara irteera egin zuten igandean. HITZA

IMANOL GARCIA

La senda aborigen liburuaren aurkezpenak eragina izan du. Pasa den ostiralean, Villabona-ko Gaztetxean, Guillermo Pi-querok eta Koldo Urrutiak egin zituzten aurkezpen lanak, historiaurrearen beste ikuspegi bat emanez. Gaiak piztu duen interesa dela-eta talde bat sortzeko asmoa dute herrian, historiaurrearen aztarnak ikertzeko. Horrela, bilera bat antolatuta dute gaur, Gaztetxean, 20:00-etan.

Hitzaldi-solasaldian 20 lagun inguruk parte hartu zuten. Lehenengo aldiz gai horietaz entzun zutenak zein zerbait gehiago zekitenak izan ziren bertan. Liburuaren aurkezleek historiaurrearen beste aurpegi bat erakutsi zuten: naturarekin harreman estuago zuen kultura batena, egungo gizartearen baino bakezaleagoa zena eta non emakumeak garrantzi handia zuen, Ama Lurraren identifikazio bezala.

Erromako inperioaren garaia ere aipatu zituzten eta horien kontra euskaldunek izandako guda harremanak. Hitzaldiari jarraipena emateko, irteera bat egin zuten Beizama-igandean, inguruan dauden aztarnak ikustera.


Toponimiaren garrantzia

Solasaldian izandako gehientzuenek egin zuten Beizamako Ilune izeneko tontorrera bisita. Harrizko hesi handiak zeuden bertan, lau metro ingurukoak, aurkariengandik babesteko eginak eta gero abeltzainek aprobetxatu dituztenak.

Liburuaren aurkezleek toponimiaren garrantzia aipatu zuten eta nola askotan informazio asko ematen duten. Zenbait adibide aipatu zituzten: Errezil (*errez hil*), Ilune (*hiltzeko une, leku*), Zelatun (*zelatan egoteko lekua*)...

Solasaldian eta irteeran izandako lagunei gaien sakontzeko gogoak mugituta, talde bat sortzeko asmoa dute, inguruan ikerketak egiteko. Esan bezala, gaur izango dute lehenengo hitzordua.

ZINEMARIK ONENA ETA FUTBOL GUZTIA
HILEKO
KUOTARIK GABE



Telebista Digital Interaktibo Mini berria

- Futbol guztia, estreinaldiko filmik onenak eta helduentzako filmik onenak (Pay Per Ulew) hileko kuotarik gabe, lehenbizikoz.
- LTD (Lurreko Telebista Digitala) kanal guztiak, antenaren instalazioa aldatu beharrik gabe.
- Eta, galnera, autonomia-erkidegoetako eta nazioarteko kanalak, programazioaren mingilda eta zerbitzu interaktiboak.

Euskaltelen DESHODETZAILER INTERAKTIBOR erosi edo alokatu besterik ez duzu. Telebista berria ikusteko aukera emango dizu. Ikusi gabe geldituko zara?

Pay Per Ulew kanalak



LTD kanalak



Kanal digital gehiago



Esatu informazioa 1717 zenbakira deituta edo Euskaltelen saltokietan



LIZARTZA ▶ INAUTERIAK

IÑIGO TERRADILLOS

Batzuk igaro, eta besteak has-tear dira. Leitzako Ihoetak izan ziren lehendabizikoak, eta Are-sokoek eman zieten jarraipena. Oraingo honetan, berriz, Lizartzako Inauteriak dira lekuko hartuko dutenak; izan ere, bihar hasiko da festa bertan. Bi asteburuetan banaturiko egitaraua antolatuta dute, biharkoa jaien hasierako eguna izango baita, eta datorren asteburuan jarraituko baitute.

Ohikoa den moduan, gibela dastatuz hasiko dituzte herritarrek aurtengo Inauteriak. Garai batean, herrian bertan hiltzen zuten txekorra, baina ohitura hori aldatu egin da. Hala ere, Inauteriatarian gibela jateko tradizioari eutsi egin nahi izan diote lizartzarrek; hala, txekorra bertan hil ez, baina gibela jateko aukera izan ohi da. Ondoren, herriko Otsolar dantza taldearen eskutik dantza saio berezia eta herritarrek eskainitako antzerki-parodiak gozatzeko aukera izango dute.

Festak hurrengo asteburuan izango du jarraipena eta, hain zuzen ere, orduan jantziko dute kolorez mozorro eta gurdiekin herritarrek. Halaber, larunbatean eta igandean izango diren ekitaldien artean, kalejirak, puska-biltzeak, hamaietakoak, trikipoteoak, ihauteri dantzak, herri afariak, jokoak, dantza-sokak... izango dira. Lizartzarrek inguruko herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte jaietan parte hartzera.

Bihar hasita, mozorroen festa izango da bi asteburuetan

Tradizioari jarraiki, gibel jatearekin emango diete herritarrek Inauteriei hasiera; bi asteburuetan banaturik askotariko ekitaldiez gozatzeko aukera izango da



laz bezala, aurtien ere Otsolar-ek dantza saioa eskainiko du. i. r.

INAUTERIAK ▶ EGITARAUA

BIHAR

12:00. Udal ordezkariak eta txekorra plazan direla, Inauteriei hasiera emango zaie gibela dastatuz.

Ondoren. Otsolar dantza taldearen eskutik, dantza berezien saioa.

LARUNBATA, HILAK 18

07:00. Kalejira dantzari, txantxo eta txistulariekin.

07:30. Puske-biltze irteera: dantzariak eta txantxoak elkarrekin ospeletik.

09:30. Etxe-zahar baserrian geldialdia gosaltzeko.

12:00. Mozorro, gurdi eta txarangen irteera errota ataritik.

13:30. Inauterietako partaide guztiak kalejira, Arrateko zubitik irtenda.

18:00. Gurdi eta mozorroak Joxe Mariko aparkalekuan bilduko dira, ondoren kalejiran plazara jaisteko. Bertan sagardotegi ezberdinetako sagardoak eta Lizartzako

talogileek egindako taloak jateko aukera izango da.

Ondoren. Trikipoteoa. **21:00.** Koadrilen arteko afaria Aztiñondo sagardotegian trikitilari eta guzti.

IGANDEA, HILAK 19

11:00. Txistulariek eskainitako *Agintari* doinuaz lagundurik, agintariekin eta dantzariekin Meza Nagusia.

Ondoren. Hamaietakoak plazan.

12:00. Dantzariak kalean ibiliko dira puska biltzen eta gurdi, mozorro eta gainerakoak kalez kale txarangak lagundurik.

13:00. *Lizartzako Inauteri-Dantza* ikusgai, herriko plazan.

14:00. Inauteri bazkaria herriko pilotalekuan.

Ondoren. Txaranga, dultzainero, jokuak, dantza-soka, zozketa, sariak...

20:30. Plazan *Ljitoa* errez Inauterien amaiera.

IBARRA ▶ KIROLAK

Errioxako Deportivo Cerveranoren aurka jokatu du bihar Ibarra areto futbol taldeak

Jubenilek eta kadeteek etxean jokatu dute Sestaoren eta Donostiako Karmeloren aurka

ERREDAKZIOA

Bihar, 18:00etan, Errioxako (Espainia) Cervera del Rio-ko kiroldegian jokatu du Ibarra areto futbol taldeak Deportivo Cerveranoren aurka. Pasa den asteburuan garaipena lortu eta

gero biharko partidaren puntuak gehitzeko helburuz jokatu du ibartarrek, sailkapenean euren aurretik daudenei gertutik jarraitzeko.

Aurkariari, hau da, Cerveranori dagokionez, zailtasun gehien eman ditzakeena talde-

ko atezaina izan daitekeela zehaztu du Ibarra-ko prentsa arduradunak, Jose Manuel Tobias Romerok. Izan ere, «maila altua erakusten dutu jokatu duen guztietan». Ibarra jokatu duen joaneko partidaren, bestealde, garaipena ibartarrek lor-

tu zuten 3-2ko emaitzarekin, eta Unai Labakak sartu zituen 3 golak. Biharko partidaren, aurrekoetan bezala, guztia emaitza irtengo da taldea; eta, gainera, jokalariek guztiak erabili ahal izango ditu Cesar Roca entrenatzaileak.

Jubenilek, berriz, Ibarra-ko Belabietako kiroldegian jokatu dute bihar, 16:30ean, Sestaoren aurka. Norgehiagoka horretan iragan asteko porrotak eginiko kaltea konpondu nahiko dute. Bestalde, gazteenek, Ibarra-Uzturpe kadeteek ere Belabietan jokatu dute bihar, 10:00etan, sailkapenean bigarren diren Donostiako Karmelo taldekoen aurka.

IBARRA ▶

Gatazkei aurre egiteko bidei buruzko tailerra abian

ERREDAKZIOA

Uzturpe ikastola lantzen ari den bizikidetzako proiektuaren baitan, *Gatazken ebazpenak trebetasun* tailerra antolatuta du gurasoentzat Ibarra-ko Udalarekin batera.

Geuz-eko (Gatazka Eraldatzeko Unibertsitate Zentroa) Maria Mendezek zuzenduko du tailerrak 10 orduko iraupena izango du, eta martxoaren 13, 20, 27 eta apirilaren 3 eta 5ean izango dira eskolak, Kultur Etxean, 17:00etatik 19:00etara. Izen-ematea udal-erretxeko Gizarte Zerbitzuetan egingo da, hilaren 23a baino lehen, eta 12 euro ordaindu beharko dira.

iragarki laburrak ▶

LANA

Tabernaria. Anoetan, neska euskalduna behar da tabernan 4 orduz lan egiteko. Eskarmuentua duena. Interesatek deitu 635 74 52 91 telefono zenbakira.
Emakumea. Emakumea behar da

Tolosan, goiz eta arratsalde, etxeko lanak egiteko eta ume-zain aritzeko. Interesatek deitu 660 44 76 30 telefono zenbakira.

Iturgina. Iturgin lanetarako laguntzaile behar da. Interesatek

deitu 656 41 68 08 telefono zenbakira.

GALDUTAKOAK

Txakurra. Txakur emea galdu da. Pekines gurutzatua. Marroia. Deitu 943 65 39 55 telefono zenbakira.

GIZARTEA ▶

Leitzaldeko bazkideen festa Arkupeak elkartearen

Bazkarirako txartelak salgai jarri dituzte; igandean bukatuko da hartzeko epea

J. ASTIBIA

Datorren astean dute egitekoa festa Leitzako eta Aresoko Arkupeak elkarte bazkideek.

Egun horretan, besteak beste, bazkaria ere antolatu dute. Landa jatetxean egingen dute otordua. Elkartetik bertatik jakitera eman dutenez, bazkari horretara joan nahi duenak txartela hartu behar du. Azken eguna, hain zuzen ere, etzi igandea da. Beraz, 27 euroren truke, Txoko tabernan daude salgai txartelak; Martin Mariñelarenak edo Eusebio Maritorenak ere saltzen dituzte.

TELEFONOAK ▶

**Larrialdiak. ((112))
Osasuna.**

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**
Medikua: 65 23 39
▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
▶ **Ibarralde.** Osasun etxea: 672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
▶ **Orendain.** Medikua: 655595
▶ **Orexa.** Medikua: 682228
▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
▶ San Esteban: 006800
▶ Gernikako arbola: 006900
▶ Amaro z. disp.: 672637
▶ Asunzion Klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurrutze Gorria: 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930**Garraioak.**

▶ Renfe Tolosa: 652889
▶ Donostiako autobusa: 361740
▶ Tolosaldea bus: 650621
▶ Leitzaran autob.: 948 221015
▶ Taxia: 670420
▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820
▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
▶ Tolargi: 650016
▶ lurramendi egoitza: 670325
▶ Tolosa gasa: 675320

LEITZA ▶ PILOTA

Oinatz Bengoetxeak gaur du bigarren final-laurdena Gernikan

Patxi Ruizekin aurrekoa irabazita, Titinek eta Pascualek garaipena eskuratu beharrez, ematera aterako dira biak

JAIONE ASTIBIA

Eskuz Binakako Pilota Txapelketan, jada bigarren final-laurdenetako jardunaldia ere ailegatu da. Gaurtik bertatik hasi eta igandera bitartean jokatuko dira beste lau partidua. Bikoteek zer egiten duten, finalerdietarako txartelak dituzte jokoan.

Gaur lautik bi partidua jokatu dira. Bata Urdulitzen, Olai-zola I.ak eta Otxandorenak, Gonzalezen eta Lasa III.aren aurka jokatu dena (Euskal Telebistako aurreneko katetik zuzenean igorriko dute hau, 22:00etan) eta bestea, ordu berean baina Gernikan, Bengoetxea VI.ak eta Ruizek Titin III.aren eta Pascualen aurka jokatu dena. Leitzaldean ikusmin handia eraginen duena, azken hau.

Izan ere, Leitzako seme den Oinatz Bengoetxeak erabateko garrantziko partidua du gaurko hau, Patxi Ruiz lagunarekin batera: aurreko final-laurdene-

ko saioan, Azkoitian jokatu zuten hartan, 22 eta 9 irabazi zieten gaur berriz ere arerio izanaren dituzten Titin eta Pascuali, hala finalerdietarako txartelaren erdia lortuz; esan baliteke, egindako tantoez gain, batez ere Pascualen ezintasun edo ez asmatzea izan zirela partiduko gako, orduan.

Gaur, «berririk»

Baina gaur beste kontu batzuk izan direla iragarri eta aurreikus daiteke. «Berri-berririk jokatzera» doazela aitortu baitute bi bikoteek.

Urdinek, aurreneko puntua lortuta izanik, aurrerako pasea lortzeko bigarrenaren beharrean daude, eta argi ikusten dute Azkoitian aurrean izan zuten bikoteak ez duela gaurkoarekin ikustekorik izan, haiek ahalmen guztiak aihertu beharrean daudelako; eta gorriek, berriz, aurrera jarraitu nahi badute berdinketa eragin beharrean daudenez —berdinketa

hausteko hirugarren partidua jokatuko litzateke hala—, Santanapen irabazi beharra dute. Batzuen eta besteen irabazi beharrez, beraz, borroka gogorra izanen da: Patxi Ruiz sasoi betean dago; Pascualek ezin du hutsik egin; eta aurrean, Titin eta Oinatz, erasokorrrak biak: eskarmentukoa bata, erasoei modu berean erantzutea gogoko duena, bestea. Ikuskizuna prest dago, beraz.

Eta leitzarrak gaur jokatu behar duen partiduan ez ezik, bihar-etzikoetan ere apustu bera dago jokoan: gaurko bestean, Olai-zola I.a-Otxandorenak dute puntua; bihar Iruñean jokatu duen Koka-Belokiren eta Irujo-Eulaterenean, bigarren hauek; eta etzi, igandea, Bergaran ariko diren Olai-zola II.a-Zearra eta Xala-Goñi III.aren artekoan, bietatik lehena du puntua. Bigarrenaren bila joan, nahiz berdinketaren bila joan, laurak ere erabakiorrak suerta litezke, edo ez.

LEITZA ▶

Aurrera handikoez ez baina ttikikiak badu partidua

Taxoaren, Iruñeko San Cernin taldearen aurka jokatu dute bihar arratsaldean

J. ASTIBIA

Aurrerak, helduen taldeak, asteburu honetan jai izanen du, Nafarroako Kopako jardunaldia jokatuko baitute Lurraldekako lehendabiziko mailako hainbat taldek, eta hori dela-eta ez da jardunaldirik izanen maila horretan.

Baina gazteek bai, ordea. Aurrerako jubeniletako taldeak badu partidua: Iruñeko San Cernin taldearen aurka jokatu du bihar arratsaldean, 15:45ean, han, hots Txoarrekoi kirolgunean, hirugarren eranskinean, Iruñera joaten direnean ohikoa duten gisan.

San Cernin talde hau sailkapeneko behelke lekuetan dago. Aurrerako gazteak, berriz, egunez egun hobeki jokatzari ari dira, zela handietako neurrietara egokitzen eta distantzi handietara ohituz, geroz eta hobeki jokatzen; aurreko asteburuan garaipena eskuratu izana horren isla izan daiteke.

LEITZA ▶ ZINEMA

‘Flores rotas’ izanen da ikusgai asteburu honetan Leitzako zinema aretoan

Aktore oso ezagunen parte-hartzearekin, iaz Donostiako Zinemaldian lehiatutakoa da

J. ASTIBIA

Oraingoan *Flores rotas* filmarekin datoz Leitzako zinemakoak. Gaur gauean, 22:30ean eta etzi, igandea, 19:30ean, sesio bikoitza eskainiko dute, ohi duten moduan.

Aukeratutako filmak Jim Jarmusch zuzendariarena da, estatubatuarra bera, eta iaz estreneatu zuen. Aitatzekoa da, gainera, Donostiako Zinemaldiko lehiaketan ere parte hartu zuela lan honetarekin berarekin, saririk lortu ez bazuen ere.

Zuzendari honek Amerikako Estatu Batuetako bizimodu, gizarte, handitasun edo handikeria ospetsu horrenaganako oso iritzi kritikoa azaldu izan du bere lanen bidez, egin dituen film gehienetan berak («Ameriketako itxurakeria») izendatzen duen horren arlo desberdinak azaldu izandu ditu, hori izan da bere lan egiteko modua eta estilitoa. Baina honetakoan joera hori hautsita, beste ildo bat jorratu du, desberdina, ikuspuntu kritikoa horretatik at. Edo ez, *Flores rotas* komedia dramati-



Bill Murray da protagonista. HITZA

ko honek ere zer erakutsia izan lezakeelako, akaso.

Horrela, Jarmuschek lan honetan errepartoa ere izen hantiloa. Baina honetakoan osatu zuen: Bill Murray, Don Johnston (gizon ezkongabe donjuan baten paperean), Juli Delpy (Sherry), Frances Conroy

(Dora), Jessica Lange (Carmen), Sharon Stone (Laura) eta Tilda Swinton (Penny) bere amoranteen paperetan; Jeffrey Wright (Winston), bere lagun mina.

Kritikarengandik lau izarreko film modura sailkatutako honetan kontaktzen denez, Don Johnston gizon ezkongabe emakumezalea bere azken amoranteak, Sherry, utzi egin du eta bere biziarekin jarraitzea doala, eskutitz arrosa bat jasotzen du, lehengo andre-gaietako batek idatzitakoa, bere bila ibili daitekeen 19 urteko seme bat baduela berri ematen diona. Bidaiatzea gogoko ez duen arren, haren bila abiatzen da lurralde osoan berrera, lehengo lau andregai ohiren zantzuak bilatuz. Ezusteko dezentze jasoko ditu giza-semeak, eta bere iraganari aurre egin beharko dio, eta era berean eta ondorioz, orainari ere bai.



AGENDA ▶

KIROLAK

GAUR

Areto futbol.

▶ Orioko tabernak-Denak taberna (3. Maila A). 20:45, Karela.

Pilota.

Euskadiko Elkartearen Artekoa.
▶ Oizpe 1-Aurrera-Saiatz (Unai Aspe-Jon Orbeago; 22 urtez azpikoak). 20:00, Mallabia.

Udaberri Txapelketa.

▶ Zazpi-Iturri-Añorga (Olaetxea-Otegi). 20:00, Amezketza.
▶ Zazpi-Iturri-Eibar (Zabala-Garmendia). 20:00, Amezketza.
▶ Zazpi-Iturri-Ursbil (Martinez-Zubillaga). 20:00, Amezketza.

BIHAR

Areto futbol.

▶ Deportivo Cerverano-Ibarra (Nazional Maila A). 18:00, Alama.
▶ Laskorain-Beti Arin (Nazional Maila B). 16:00, Usabal.
▶ Ibarra-Sestao (Jubenilen Nazional Maila). 16:30, Belabieta.
▶ La Bellota-T. Lakunza (1. Maila). 19:30, Bikuña.
▶ UZ Coop-Cash Converters (2. Maila). 16:00, Aldiri.
▶ Idiazabal Gorrotxategi-Eskolapioak (2. Maila). 22:30, Zelaia.
▶ Zestoia-Laskorain (Emakumezkoen Senior Maila). 17:30, Gurutzeaga.
▶ Zestoia-Eskolapioak (Nesken Jubenil Maila). 09:45, Gurutzeaga.

Eskubaloia.

▶ Tolosa Eskolapioak-Ursbil (Jubenilen Maila). 17:00, Usabal.

Futbola.

▶ Lagun Onak-Tolosa (3. Maila). 17:00, Garmendipe.
▶ Tolosa-Danok Bat



Ostatuaren lehen urtemuga

LARRAUL ▶ Herri Ostatuaren ardura hartu zituenetik urtebete egingo duela-eta hainbat ekitaldi antolatatu ditu asteburuan Mikel Polok: gaur, 17:30ean, poteoa; 18:30ean, Kean, Mondo Cretino, Sylocibe, Tirri-Tarra, Mal de Muchos, Txoriburu, Jauko Barik (argarkian) taldeak; 21:00etan, afaria; ondoren, DJ-ak: Revolutionar Brothers, Mr. Snoiz and Puchero eta Imanol Kostas. Bihar, irteera egingo dute Oiartzunera. Eta etzi txokolatada prestatuko dute, 17:00etan. HITZA

(Jubenilen Nazional Maila).
16:30, Berazubi.
▶ Danena-Lengokoak (Lurraldeko 1. Maila).
16:30, Elbarrena.
▶ Lasarte Oriá-Amaroz (Lurraldeko 2. Maila).
17:15, Michelin.
▶ Tolosa B-Ordizia (Lurraldeko 2. Maila).
17:30, Usabal.
▶ Tolosa-Ekintza (Jubenilen 1. Maila). 15:30, Usabal.
▶ San Cernin-Aurrera (Jubenilen 2. Maila). 15:45, Taxoara.
▶ Mutriku-Tolosa (Nesken Liga). 16:30, San Miguel.

▶ Aurrera-Saiatz-Oizpe (Joseba Senperena; 22 urtez azpikoak). 17:00, Beotibar.
▶ Aurrera-Saiatz-Joko Alai 2 (Ruben Zapirain; nagusiak). 17:00, Beotibar.
▶ Arkupe-Aurrera-Saiatz (Mikel Belloso-Jabi Oteiza; seniorrak). 17:00, Gernika.
▶ Zazpi-Iturri-Lemoa (Ropon-Legarreta; jubenilak). 16:00, Amezketza.
▶ Zazpi-Iturri-Lemoa (Baez-Garmendia; seniorrak). 16:00, Amezketza.
▶ Zazpi-Iturri-Amorebieta (Baez; jubenilak). 16:00, Amezketza.
▶ Zazpi-Iturri-Ortuella (Sukia; kadeteak). 17:00, Zaldibia.
▶ Zazpi-Iturri-Amurrio (Iraola-Azelus; kadeteak). 17:00, Zaldibia.

Saskibaloia.

▶ Tolosa Aralar-Asti Leku Tsunami (Liga Interraut.). 18:00, Usabal.
▶ Argysan Tolosa-Zarautz (Kadeteen Maila). 12:00, Usabal.

Pilota.

Euskadiko Elkartearen Artekoa.
▶ Aurrera-Saiatz-Zaramaga (Aratz Irazusta-Xabier Telleria; jubenilak). 17:00, Beotibar.

Udaberri Txapelketa.

▶ Oiarpe 2-Aurrera-Saiatz 1 (Lasa-Zapirar; kadeteak). 19:00, Oiartzun.
▶ Oiarpe-Aurrera-Saiatz 2 (De la Sotilla-Ebeberria; kadeteak). 19:00, Oiartzun.
▶ Hernani-Aurrera-Saiatz 3

(Beloki-X. Mujika; kadeteak). 16:30, Hernani.

▶ Aurrera-Saiatz 1-Aretxabaleta 2 (Onsaló-J. Mujika; seniorrak). 11:00, Beotibar.

▶ Aurrera-Saiatz 2-Illunpe 1 (Telleria-Huarte; seniorrak). 11:00, Beotibar.

ETZI

Areto futbol.

▶ Relojos Mondaine-Hirukide Eskolapioak (Mutilen Jubenilen Maila). 12:00, Ipurua.
▶ Eskoriatza-Cash Converters (Mutilen Jubenilen Maila). 11:00, Intxaurkueta.

Eskubaloia.

▶ Donibane-Tolosa (Lurraldeko 2. Maila). 12:00, Pasaia.

Futbol 7.

▶ Jalgi Kafé Antzokia-Ibarrakoa Gazte Asanblada (1. Maila A). 10:30, Beasain 2.
▶ Continental Industrias-Bereziartua sagardoa (1. Maila A). 15:00, Felix Garin 2.

Pilota.

Euskadiko Elkartearen Artekoa.
▶ Aurrera-Aurrera-Saiatz (Aritz Mujika; jubenilak). 10:00, Leiza.

ANTZERKIA

Tolosa. Ahulkiak errezital antzeztua. Harkaitz Cano, Patxi Santamaria eta Itziar Lamuedra. 22:30ean, Kultur Etxean.

DEIALDIAK

Amezketza. Euskara Elkarteak lehenengo kantu afaria antolatatu du. 20:30ean, Goiko lokalean.
Berastegi. Hilaren 18an izango dira Inauteriak. Egun horretako afarirako txartelak salgai daude Urepele elkartearen eta Zelai tabernan, 18 eurotan. Gaur da izena emateko azken eguna.

Tolosa. Eta orain zer?

Gerontologikoaren aldeko plataformak zentro berri bat eskatzeko sinadurak biltzeko mahaiaik jarriko ditu bihar. 11:30etik 13:00etara, Berdura plazan, Trianguloan eta Iparragirren.

Tolosa. Udaberri dantza taldeak dei egiten die 15 urtetik gorako neska-mutuei taldean parte hartzera. Interesatuak astelehenean, asteazkenean eta ostiralean Igarondo igerilekura agertu besterik ez dute, 20:30ean, edo 699 02 66 18ra deitu (Aritz).

MUSIKA

Tolosa. Txuma Murugarren eta Piztiak. 22:30ean, Bonberenean.

IKUS-ENTZUNEZKOAK

Tolosa. AHTren kalteak Anoetan diapositiba emanaldia. 19:30ean, Gaztetxean.

ZINEMA

Leitza. Flores rotas. Gaur 22:30ean, eta etzi 19:30ean, zinema aretoan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leitza. Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.
Tolosa. Etebeeste, J. M. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 40.

IRRATIA

Txolarre Irratia (107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. Tolosaldeko ahotza magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepasoa, agenda, albisteak, elkaritzetak, lehiaketa, disko eskainiak...
21:00-22:00. Zaharrak Berri, Hala Bedi Irratiaren saioa, Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.
22:00-23:00. Arkako show musika saioa.

▶ **HITZA** ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzikizunik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Iñaki.

Zorionak museko punturik onenari?



URTE ASKOAN
Unai Zabala.

Gaur 7 urte. Zorionak, Mokote. Muxu handi bat.

HITZA, zorion agurren tartera
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA • Udaltxeko bulegoa - LEITZA
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!